

DURANGOKO HEZKUNTZA-ERRONKAK ELKARLANEAN GARATZEKO prozesua

UEK MARTXOKO BATZARRA: akta

Eguna: 2025eko martxoak 19

Ordua: 18:00-20:00

Lekua: Elkartegia

Bilera-modua: aurrez aurrekoa

DEITUTAKOAK	Etorritakoak	Etorri ez direnak
1. Asier Perugorria EAJ-PNV -hezkuntza zinegotzia	☒	☐
2. Nagore Lozano Zarandona (EH Bilduko zinegotzia)	☒	☐
3. Iker Txertudi (EAJ-PNVko zinegotzia)	☒	☐
4. Sheila Gonzalez (PSE-EEko zinegotzia)	☒	☐
5. Veronica Redondo (Immigrazioa Udala)	☒	☐
6. Daniel Irazola Atxa- Maristak-Zuzendaria	☒	☐
7. Moises Urien Arrizabalaga- Ikasketa Burua-Jesuitak	☒	☐
8. Arantza Arrizabalaga-Landako Eskola zuzendaria	☒	☐
9. Jon Gorriño Vicandi- Durango BHI zuzendaria	☒	☐
10. Oihane Garcia- Nevers ikastetxea	☒	☐
11. Iker Gomez de Segura Solis- Ibaizabal ikastola- Zuzendaria	☒	☐
12. Urko Rodriguez-Kurutziaga-zuzendaria	☒	☐
13. Izaskun Duñabeitia Kintana- Zabalarra HLHI zuzendaria	☒	☐
14. Oier Urigoitia-San Antonio ikastetxea zuzendaria	☒	☐
15. Maider Olabarria- IGE Zabalarra	☒	☐
16. Jonatan Azcondo Padin-IGE Jesuitak	☒	☐
17. Jorge Varela Dorrio – Herriaren eskubidea zinegotzia	☒	☐
18. Idoia Aldekoa (Elhuyar)	☒	☐
19. Olaia Jimenez (HUHEZI-MU)	☒	☐
	19	0

1. Sarrera eta kokapena

Hezkuntza zinegotziak bertaratuei harrera egin die ongi-etorria emanez eta saioa kokatu dugu:

1. Sarrera eta kokapena.
2. Udaleko informazioa
3. Ekintza-planaren garapena:
 - a) Harrera-planen azterketa: ikastetxeek eta udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea: Ondorio nagusiak eta lanerako eremuak
 - b) Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoak dokumentua: Gaiari itxiera.
4. Komunikazio-plana: bideorako grabazioak
5. Hurrengo urratsak
6. Balorazioa eta itxiera

2. Udaleko informazioa

Asier Perugorriak hezkuntza zinegotziak hainbat gairen informazioa partekatu du:

1. Emakundek NAHIKO deitzen den programa. Programa ez dago indarrean, baina materialak igota dituzte eta oso baliagarriak izan daitezke. Hau egiteko ikaslegoak landu beharko luke.

[Zer da Nahiko?](#)

2. Irakasleentzako formakuntzak online eskolen bitartez:

a. Prest gara ikastaroak: Pertsona bakoitzak 2 ikastaro egin ditzake. Hezkidetzak ikastaroa. Matrikulak otsailean hasten dira (hilabete honetan, oraindik ez da aterata). [Prest Gara: prestakuntza-jardueren deialdia - Unibertsitateaz kanpoko irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen etengabeko prestakuntza - Euskadi.eus](#)

b. Emakunderen Berdintasun Eskola (EBE) [Emakunderen berdintasun eskola is coming soon](#)

3. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari bideratu ahal diote beharra, eta hortik erabaki dezaten zer egin dezaketen. Kasu honetan gurasoen elkarteekin indarrak batzen badituzte, eskaria indar gehiago lortu dezake.

4. Gurasoen elkarteek diru-laguntzak eskatzeko aukera daukate. Beharra ikusten badute diru hori honelako programetara bideratzea proposatu daiteke.

5. Arazo larria baldin bada eta ez badakite zelan konpondu, nirekin jarri ahal dira harremanetan. Berdin proposamen zehatz bat denean, hitzaldi txiki bat edo horrelako zeozer.

6. Udalak programa eskaintzen jarraituko du baina irismena murriztua da.

Sexu aholkularitza zerbitzua:

Durangoko Udaleko gazteria sailak Sexu aholkularitza zerbitzua dauka 2024ko irailaz geroztik. Zerbitzu honen bitartez bete nahi den administrazioaren beharra Durangoko gazte, profesional eta familien artean sexu osasuna sustatzean eta jokabide arriskutsuak prebenitzean datza. Gaur egun, gazteek sexualitatearekin lotutako hainbat erronkari egin behar diote aurre: informazio egokirik eza, gizarte presioa eta eduki desegokiak goiz izatea. Testuinguru horrek gero eta gehiago eskatzen du orientazio espezializatua, bai gazteen aldetik, bai haien familien aldetik, eta erantzun eta laguntza bila dabilta gai horiei modu seguruan eta arduratsuan heltzeko. Zerbitzu honek, arrisku egoerei aurrea hartzeko, harreman osasungarriak sustatzeko eta sexu hezkuntza egokia emateko baliabide eta orientazio pertsonalizatua eskaintzea du xede. Horrela, Durangoko gazteentzat ingurune seguruagoa eta osasungarriagoa sortzen laguntzen da, modu argi eta proportzionalen, tokiko administrazioak osasun publikoaren eta gazteen ongizatearen arloan dituen helburuak betetz. 2024ko Gazte Foroko kideek eskatutako zerbitzua ere bada eta ildo horretan oso beharrezkotzat jotzen du Durangoko Udalak iradokizun horri erantzutea.

ZERBITZUAREN HELBURUAK

Sexu aholkularitza zerbitzua Durangoko Udaleko gazteria sailaren barruan kokatzen da eta bere helburu nagusia da gazteen eta oro har herritarren sexua, sexualitatea eta desirak modu osasuntsuan bizitzeko eta tratatu onetan oinarritutako harremanak eraikitzeak tresnak eskaintzea.

Hauek dira helburu zehatzak:

- Sexualitatearen inguruko informazioa eskaintzea: sexu-identitate, sexu-orientazioa, generoarekin gatazkak, desirak eta harremanak modu osasuntsuan bizitzeko zailtasunak, etab.
- Sexualitatearen inguruko tabuak deseraikitze baliabideak eskaintzea.
- Tratu onetan oinarritutako harreman ereduak sustatzea.

PUBLIKO OBJEKTIBOA

Durangoko gazteria sailaren parte izanik, publiko objektiboa nerabeak dira. Hala ere, sexu aholkularitza zerbitzua ez dago publiko honeri mugatuta. Familiak, hezkuntzako profesionalak, etab. ere gerturatu ahal izango dira zerbitzura eta haien zalantzak eta iradokizunak planteatu.

KONTAKTATZEKO BIDEAK

- Zuzeneko arreta saioak. Asteartero, ordu eta erdiko saio presentzialak eskaintzen dira (16:00etatik 17:00etara) Durangoko gaztegunean (Laubideta, 6an). Horretarako, aurretiko hitzordua hartzea eskatzen da bai telefonoz (644 89 86 61), instagram bidez (@sexorienta).
- Zalantzak argitzeko telefonoa: 644 89 86 61 telefonora ere euren zalantzak planteatu ditzateke: whatsapp edo deia bidez.
- Informazio gehiago: gazteria@durango.eus

IKASTETXEEI ESKAERA

Era honetako zerbitzuen inplantazioan, beste udalerrietako esperientzietan oinarrituta, beharrezkoa izaten da ikastetxeetara pertsonalki hurbiltzea eta DBHko ikasleekin egotea. Gazteria sailatik, ikastetxeen arduradun zareten heinean, eskatzen dizuegu zuen eskoletara hurbiltzeko baimena ematea ikasleei eskuragarri duten zerbitzuaren berri ematera. 10-15 minutuko bisita laburra egingo luke sexologak (Irati). Era honetan, nahi duguna da ikasleek pertsonalki Irati ezagutzea eta konfidantza izatea berarekin.

Eskatzen dizueguna da, zuen baimenaz gain, DBH-ko arduradunaren (edo zuek egoki ikusten dozuenaren) kontaktua:

- Izen abizenak
- Telefonoa
- E-maila

Helbide bi hauetara bidali (gazteria@durango.eus eta guradozu@gmail.com) Irati berarekin jarriko da kontaktuan zuei egokien deritzozuen datan ikastetxera hurbiltzeko. Zalantzarik izanez gero, jarri nirekin kontaktuan arazo barik telefono honetan: 630 47 39 51 edo emailaz: gazteria@durango.eus

Era berean, bideoa grabatzeko dinamika zein izango den azaldu du, saioak ohiko dinamikaekin aurrera egingo du eta komunikazio-arduradunak banan banan deituko dio kide bakoitzari.

> Helburu-funtzioak:

ONDORIOAK

Helburu-funtzioak

Faseak eta helburuak

Egokitze-integrazioa-akademikoa-harremanak-kidetzatza-onarpene. Aurkeztu dena baliagarria izan da, argiak izan dira harrerak izan ditzakeen fase edo helburu ezberdinak



Larrialdi-egoerak

Prozesuaren helburuak argiak izan arren, larrialdi egoeretan dena hankaz gora jartzen da.
Larrialdi egoeretan, zer egin? nora jo?

12

> Urratsak/ardurak:

ONDORIOAK

Urratsak-ardurak

Herritartzea


Eskolatzen laguntzen du, baina zailantza herritartzen laguntzen duen.
Umeekin lan egiten dugun neurrian itinerarioakademikoa bada helburu bat; etapan berandu badator, helburua ere aldatzen da; aurretiko etapetan agian beste helburu batzuk nagusitzen dira (euskara salbuetsita eta materiala erdaraz ematen zaie).

Harrera

Harreraren fokua ipintzen dugu, baina jarraipena eta ebaluazioa?

Jarraipena: eskolan eta herrian.

Ebaluazioa, nola egin?



13

> Familia-egoerak:

ONDORIOAK

Familia-egoerak

Beharrak

Harrera-planak egiten ditugu gure ikuspuntutik (ikuspegi paternalista).
Harrera-planari buelta eman behar zaio eta euren beharretatik diseinatu. Zelan bertatu familia migratuen ahotsa? Zelan?

Espektatibak

Zailtasunak daude askotan beraien egoerak jasotzeko, espektatiba altuak sortzen ditugu eta horregatik, gero, frustrazioak sortzen dira eta ematen du ez dugula ezer egiten, eta egiten dugu.

Komunikazio bideak

Komunikazio bideak, zelan heldu? Komunikazio bide eta moduak agian aldatu behar dira eta agian familia horiekin beste kanal batzuk probatu (kartelak bakarrik ez da efizientea).



14

> Aparteko aipamenak eta gai emergenteak:

ONDORIOAK

Aparteko eta gai emergenteak

Talde intersektoriala

Talde intersektionala sortzea proposatu da: eus kaltegia+ikastetxeak+udala+G.ZZ.

Proposatu da agian kasuen azterketa egin eta, erantzuna sistematizatzeko lan bat egin daitekeela.

Sinergiak behar dira.

Koordinazioa

Udala eta ikastetxeen artean.

Eskola-Udala beste herri batzuetako adibideak aztertzea.

Larrialdi-egoerei erantzuna

Larrialdi egoeretan zer eta nola egin? norengana jo?



15

> **Besterik:**

ONDORIOAK

Bestelakoak

Baliabideak

Kuotak ordaindu ezin diren kasuan, bekak...
Gai honekin ikastetxeetan nola jokatzeko den partekatzea interesgarria litzatekeela proposatu da.



16

Lanerako heldulekuak:

LANERAKO HELDULEKUAK

ESANAHIA:

- Inklusioa vs. Integrazioa, zein da HPareresanahia?
- Harrera eta herritartzea, zein?
- Adinaren arabera, zer da aldatu beharrekoa?
- Hizkuntzaren arabera, zein egokitzapen behar dira? Ikasmateria egokitzeko beharra dago?

LARRIALDI-EGOERAK:

- Larrialdi-egoeretan, erantzuna:
 - Zer egin daiteke? nola jo dezakegu? Argitzeko beharra.
 - Zer da larrialdi egoera bat ikastetxeendako? Eta GG.ZZ endako?
 - Noren laguntza behar da? Talde intersektoriala sortu behar da?
- Erantzuna sistematizatu: dauden egoerak identifikatu, kasuan kasu sistematizatu eta arautu egoera jakinei eman beharreko erantzunak nolakoak diren zehazteko.

FAMILIA-EGOERAK:

- Harrera-planaren ikuspegia zein izan behar da? paternalismotik aldentzeko, nola egin?
- Nola integratu familien ahotsak? HPean?
- Nola ezagutu familien beharrak?

HARRERA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Harrera-planaren jarraipena eta ebaluazioa, nola heldu gaiari?

UDALA ETA IKASTETXEEN ARTEKO KOORDINAZIOA:

- Koordinazio urratsak abiatzeko, zeintzuk dira baldintzak?
- Talde intersektoriala, zeinek osatuko luke? Zein funtzio izango luke?
- Zein sinergia behar dira?

BALIABIDEAK

- Nola egin baliabideen kudeaketa?

17

Aurkeztutako ondorio eta heldulekuen edukia osatzeko talde txikietan jarri dira honako galderari erantzuteko: **Azaldutako ondorio eta heldulekuei, zerbait gehituko zenioke?**



Plenarian partekatu dugu ondoren eta hauek dira jasotako ekarpenak:

1. Taldea:

- Esanahian geratu gara- Zer da harrera? Harrera-mota ezberdinak sailkatu daitezke: akademikoa, kulturala, soziala...eta arlo bakoitzean beharrianak zein diren jakitea
- Beharrianak bi ikuspegietatik landu beharra: batetik, gure beharrak zein diren (familia horiek hartzen ditugun neurrian); bestetik, beraien beharrak, datozen familien beharrak zein diren. Sailkapen horretan gure beharrak zein diren jakin eta argitzea; beharrak ezberdinak diren neurrian, harrerak ere desberdinak direlako.
- Beharren arabera, harrera-planen kasuistika ezberdina izan daiteke. Taula bat egin daitekeela proposatu da eta kasuistika ezberdinak multzokatu egin ditzakegula. Adibidez, adin jakin batekoak, familia unitate jakinekoak harrera-mota bar beharko dute...
- Harrera, eskolara bideratutakoa eta herrira bideratutakoa

2. Taldea:

- Umeari harrera ona egiteko eta bere arrakasta ziurtatzeko diagnostikoa egiterakoan ze behar dituen detektatzeko zailtasunak izaten dira.

Diagnostikoarekin asmatzea garrantzitsua da, baldintza ezinbestekoa harrera on bat egiteko; kontuan hartuta ere hezkuntza-sistema ezberdinetako umeak etortzen zaizkigula...

- Harrera da lehenbizikoa eta herritartzea gero. Harrera plan honek hartu nahi duen zabalera handiegia da, fokua jartzea komeni da denbora eta espazio zehatza batean...harreraren iraupena zehaztu beharra, gainera jakinda etorkinak hara eta hona dabiltzala.
- Hezkuntzara mugatu beharko ginateke (harrera gure eremuan kokatu behar dugu).
- Harreran azpimarratzekoa: adinak eta familia egoerak, harrera bera, harrera-beharra eta emaitza asko baldintzatzen du.
- Ikastetxeak beharrianen diagnostikoa eraikitzeke eta sare bat eraikitzeke bidelagun izan daitezke.

3. Taldea:

- Hasieran egin behar duguna da harrera afektiboa, zaintza afektiboa. Denbora behar da ikasle bakoitzak ze zailtasun, ze beharrian izan beharko duen jakiteko. Lehenbizi zaintza egituratu behar da, horrek dakar ezagutza eta gero dator finkapena. Inklusioa vs integrazioaren hasierako urratsa da ziantza afektiboa.
- Familia batzuk nomadak dira. Zer behar dute? Zeozer azkarra eta erreza. Harrera kokatzen dugu pertsonen harrera bezala, eta eskaintzen diozu daukazun dena arrakasta izateko. Hasieran eskaintzen diozuna da hurbiltasuna, afektibitatea...
- Eskolak ez du kontatzen harrera-gaietan dabilzan elkarteen sareekin, eta sareak ematen dio laguntza.

4. Taldea:

- Arrakasta akademikoa aldatzen da adinaren arabera, ibilbide akademikoa guztiz aldatzen da.
- Sare horiek eraikitzen lagundu beharko genuke ikastetxeok.




Jarraian, bigarren galdera bat planteatu dugu eta lanerako heldulekuei begira jarri gara:

Lehentasunak ezarriko ditugu edo badago heldulekuren bat beste guztietan eragina izan dezakeena?

Lurrean ezarri ditugu helduleku ezberdinak eta kide bakoitzari 3 gometx eman dizkiogu, honela banatzeko eskatuz: lehentasun handia 2 gometx; lehentasun baxua, gometx 1. Hauxe izan da emaitza:





Gomexen banaketa, gehien jaso dituztenetatik gutxien jaso dituztenera:

- 13 gomex: Aparteko aipamenak eta gai emergenteak
- 12 gomex: Larrialdi-egoerak
- 10 gomex: Familia-egoerak
- 3 gomex:
 - o Harrera-planaren jarraipena eta ebaluazioa
 - o Udala eta ikastetxeen arteko harremana
 - o Helburu-funtzioak
- 1 gomex: Baliabideak
- 0 gomex:
 - o Esanahiak

Oro har, garrantzia gehien edo lehentasun gisa definitutako heldulekuak hauek izan dira: **2. heldulekua (larrialdi-egoerekin lotuta)**, **3. heldulekua (familien egoerarekin)** eta **5. heldulekua (Udala eta ikastetxeen arteko koordinazioarekin lotuta)**.

Sortutako elkarrizketatik jasotakoak:

- Baliabideei dagokionean, gidak eta sortuta duguna baliatzeaz eta dauden egiturak ordenatzeaz ari gara (migrazioarekin lan egiten duten elkarteak, kasu)
- Harrera bi planotan; batetik informazioa emateaz (zein da gure herria, gure kultura eta hizkuntza...) eta bestetik, baliabideak (zer dago herrian)
- Ikastetxeetatik herritartasunaren gaia lantzea, herri honen parte sentitzen ote garen urrun ikusten dut, batik bat, gure ikasle asko ez direlako soilik Durangokoak.

- Aparteko gai emergentetan aipatzen den horretatik abiatzea abiapuntua izan daiteke.
- Ikastetxeetan abiapuntuko harrera planak baditugu baina gero zailtasunekin aurkitzen gara, emergentzia-egoerak ditugunean...protokoloz josita gaude eta ondo legoke artikulatzea norengana jo behar den kasu bakoitzean, ze ate jo...
- Protokolizatuta dugu dena baina detektatu eta gero zer? Zer egiten dugu? Sistemikoki ondo antolatuta dugu baina erantzuna kanpotik etorri behar denean...
- Diagnostiko txiki bat egiten hasi gaitezke, azken urteetan ze adineko ikasleak etorri diren, ze herrialdetik, ze espektatibekin eta ea horiei erantzunik ematen diegun jakin, bai ikastetxetik, bai herri bezala ditugun baliabide eta aukeretatik.
- Harrerak urgentzia horretatik kanpo egon behar dira.
- Ikastetxeak parametro berdinetan egiten badugu harrera hori, are hobeto.
- Integrazioa eta herritartatzea gure harreretan nola sartu? Ikasleak bokazio artistikoa duela ikusten badu herriko antzerki taldera bideratu?
- Jarraipena eta ebaluazioa gakoa da, ikastetxeetako harrera-planak hobetzeko neurriak hartzen ari bagara, behar dugu jakin orain arteko inpaktua eta balorazioa zein den, eta azken urteetan harrera hori jaso duten familien ahotsa jaso beharko genuke.

Elkarriketaren ondotik bi zeregin atera ditugu:

- Batetik, lehentasunak eta edukiak aztertuta, esandakoari forma emango dio Talde Teknikoak.
- Azken ekarpena kontuan hartuta, azken bi urteetan harrera jaso duten familien ahotsak jasotzeko galdetegi bat diseinatuko du Talde teknikoak, ikastetxe bakoitzak, guraso elkarteekin elkarlanean, ahots horiek jasotzeko.

3.2. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoak.

Mugikorren gutxienekoen dokumentua emailaz bidali zela gogorarazi dugu eta ekarpenik dagoen galdetu dugu. Ez da ekarpenik izan. Hori horrela, dokumentuaren lanketa itxitzat eman da eta aipatu da araudiaren jarraipena eta ebaluazioaren gaia ikasturte bukaeran edo hasieran lantzeko gaia dela, ikusteko hartutako neurrien eragina zelakoa izan den.

Halaber, aipatu da Altxa Burukoek udal zinegotziekin biltzea nahi dutela dokumentuari ekarpena egiteko. Beraz, bilera honen ostean, bertan aipatutako ekarpenen berri emango da.

4. Hurrengo urratsak

Talde tekniko bezala hasiera batean martxora arte izatea aurreikusita bazegoen ere, azkenean ikasturte bukaera arte izatea aurreikusi dela azaldu dugu. Hurrengo saioen berri eman da.



Ebatzi da apirileko UEK ez egitea, eta honako datak ezarri dira; maiatzak 14 eta ekainak 11. Falta den saioa uda aurretik edo ondoren egingo dugun galdetuta, irailean egitea hobetsi da, ez da datarik jarri.

5. Balorazioa eta itxiera:


Saioa ixteko, hitz batez nola doazen galdetu zaie partaideei:

- Nahastuta, harrera, emergentzia...
- Esaten dugunarekin magia egiten duzue
- Aurrerapauso bat eman dugu
- Garrantzitsua denon partaidetza..agian etapa batzuei gutxiago eragiten die harrera-gaiak (Batxilergoa, Lanbide heziketa...)
- Ausartak gara, ez dira batere gai errazak eta minimoak ezartzen baditugu ondo
- Irekitasunak ixten...
- Oso harro nago zuetaz, ez da materia bakarrik...gai askori buruz hitz egin eta kezkatzen zarete eta ama bezala oso babestuta sentitzen naiz.
- Ni lehengo fasean nago, pixka bat tokiz kanpo sentitzen naiz...
- Denok iritziak korapilatzen dira eta kostatu egiten zait
- Txikitu dugu gaia baina larrialdi-egoera horiek ematen ari dira alderdi guztietatik, meloia irekitzerakoan liburu zabala irekitzen da...

Saioaren balorazioari dagokionez, 7 partaidek erantzun dute ebaluazio-galdetegia. Hona hemen erantzunen laburpena:


1. Sexua

7 erantzun




2. Bileraren ordutegia eta iraupena egokiak izan dira

7 erantzun




3. Bilera lekua egokia izan da

7 erantzun




4. Lanerako giroa atsegina izan da

7 erantzun




5. Gaiak lantzeko modua gustatu zait

7 erantzun




6. Parte-hartzea zabala eta anitza izan da

7 erantzun




7. Bilera aurretik jasotako informazioa egokia izan da

7 erantzun




8. Ekarpen interesgarriak egin dira

7 erantzun



9. Bileran izandako parte-hartzeak asetu nau

7 erantzun



INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
- Giro ona partaideen artean - Betiko lez, zuen lanari esker ateratzen dugu lana - Bide berdinetik joateko nahia - Gaiak erpin asko ditu eta dinamizatzailerik norabidea emateagatik egiten duzuen lana ikaragarri ona da - Adostutako planarekin aurrera goaz, telefono mugikoren gaia itxi eta hurrengo gaiak ebatu diogu. - Taldea osatzen dugunon konpromisoa - Betikoak: pentsatzen duguna esateko espazio lasaia da, aintzat hartuak gairela sentitzen dugu, elkarrekin egoteko lekua da...	- Nire ustez gaiak gehiago zehaztu beharko lirateke aurretik horrenbeste denbora ez emateko horretan - hotsa zegoen aretoan - Besterik ez, eskerrik asko - Ondo ari garela iruditzen zait. Nahiz eta bilera guztietara denok joaterik ez izan pertsona berdinak joatea gauzak errazten dituela uste dut. - Zereginei hasieratik helburu bat jartzeak lagunduko liguke, teorizazio-lan bat bakarrik izan ez dadin, bere horretan baliagarria izan arren: adibidez, harrera-plana lantzeraz goaz udalak hezkuntza-sistemarengandik jasotzen dituen egoerak atenditzeko modua berrorientatu nahi duelako.